

Tomas Larrañaga

Ekonekazaritza elkarteko presidentea

«Kostu guztiak aintzat hartuta eta luzera begira, nekazaritza ekologikoa merkeagoa da»

Europako Batasunak eredu ekologikoaren aldeko diskriminazioa onartu duela azpimarratu du Larrañagak.

// Ivan Santamaria

Baserri guztia eraldatu, eta 1990. urtean nekazaritza ekologikoari heldu zion Tomas Larrañaga Antzuolako nekazaria. Gaur egun, Ekonekazaritza federazioko presidentea da, 1996an Arabako Bionekazaritza, Bizkaiko Ekolur eta Gipuzkoako Biolur elkarteak batzeko sortu zen egitasmoa.

Lurra nekazariaren «balioa» de-

la aldarrikatzen du, ohiko praktikak alde batera uzteko argudio modura. «Lurra zaindu behar dugu, eta nekazaritza ekologikoak argi dauka guez garelako lurraren jabeak, maizterrak baizik, eta lur hori hurrengo belaunaldiei egoera berean edo hobeto utzi behar diegu».

Kritikoa da oro har Euskal Herrian azken hamarkadetan nekazaritzak hartu duen bidearekin. «Baserri eredu bat dugu denok buruan, agian kaletarrak oso idealizatu, baina duela 30 urteko base-riak ez du orainoarekin zerikusirik». Gaur egun, betiko praktika dibertsifikatua izan ordez, «etxalde, industria» bihurtu direla uste du, «eta hori ingurumenarentzat arazo handia da».

Nekazaritza hidroponikoak —

lurrean landatzea behar ez duenak — izan duen zabalkundea horren ondorioztat jo du. «Nekazari arruntak ahalik eta etekin handiena atera nahi du, baina horrek lurra hondatu du, eta labore hidroponikoak horregatik martxan jarri behar izan dituzte».

Produktio ekologikoa garestiagoa dela dioen topikoaz mintzo da. Akaso, ekoizleak eurak horren errudun ere badirela onartzen du. Badu kontrakoa frogatzeko teoria interesgarri bat, hala ere. «Orain erreka gehienetan araztegiak daude, denok ordaintzen ari gara, ingurumen aurrekontuetatik. Garai batean erreka horiek kutsatu zituzten enpresek torlojuak egiten bazituzten, sekulako errendimendua aterako zieten, gerora begira izan



RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

diren kostuak ez zituztelako kontuan hartzen».

Elikagai industrian izan diren krisiak ere horren erakusle dira, haren aburuz. «EAEn bertan mila milioi inguruko ondorioak utzi zituen behi eroen gaitzak. Noski, hori ez zen haragian islatu guztia, baina gizarte osoak ordaindu zuen». Hori guztia dela eta, berak eta beste askok bultzatu duten aldaketaren beharra nabarmendu du. «Kostu guztiak aintzat hartzen badira eta luzera begira, nekazaritza ekologikoa merkeagoa da».

Sintesi kimikoaren bidez eginko produktuak ezin dira erabili. Ia guztia debekaturik dago. Kobre sulfatoa, sufrea, borroka biologikoa eta landareetatik ateratako estraktu batzuk baino ez dituzte eskura. Muga hertsia horietatik kanpo dauden faktoreak ere neurtzen dituzte ekoizle askok. «Plastikoa erabiltzea posible da, baina jasangarritasun ikuspuntu batetik zalantzan dago, petrolioarekin egin dagoelako, eta hondakinak uzten dituelako». Gu-txi batzuek ere traktoreari bizkarra eman diote eta lurra animalien laguntzarekin lantzen dute.

Nekazaritza tradizionalak *krisialdi* hitza ia parean izaten du aldi oro. Europatik datorren diruaren menpekotasuna handia da labore batzuetan. Eta hori bukatu egingo da. «Nekazaritza mota batzuk desagertu behar direla erabaki du Bruselak. Aldiz, nekazaritza ekologikoaren aldeko diskriminazioa egin behar dela adierazi du», Larrañagak zehaztu duenez. Euskal Herrian, oraingoz, urrun ikusten du momentu hori. «Nekazari arruntek guk baino askoz diru laguntza handiagoak eskuratzen dituzte, ongari kimikoak edo produktu kimiko kutsakorrek diruz laguntzen dira».

Barazkiak plazak merkatuan saltzen jarraitzen du Larrañagak, eta entzun nahi dion orori labore ekologikoen dohainak azaltzen dizkio.



RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

LEGEA PREST BIGARREN AHALEGINEAN

Eusko Legebiltzarreko osoko bilkuraren behin betiko oniritzia jasotzea baino ez zaio falta Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Legeari.

// I. S.

Euskal Autonomia Erkidegoak urtea amaitu baino lehen indarrean izango du Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Legea, azken egi-

duko ezusterik ez badago behintzat. Joan den asteazkenean, Eusko Legebiltzarreko talde politikoko guztiek, PP izan ezik, arau berriaren alde bozkatu zuten Nekazaritza eta Arrantza batzordean. Hor-taz, alderdiak iritzi aldaketan ez bada, osoko bilkurak behin betiko oniritzia emango dio testuari.

Lege egitasmoa ganberatik igaro den bigarren aldia da, gainera. Eusko Jaurlaritzaren asmoa aurreko legealdian onartzea zen, baina hauteskunde aurrerapenak tramitea moztu zuen, eta bertan behera geratu zen.

Legea bera izatea baino gehiago, Nekazaritza Ekologikoaren Kontseilua eraberritzea eta horren egi-

tura juridikoa aldatzea zen sektorearen aldarrikapena. 1996. urteko dekretu batek behin-behineko kontseilua sortu zuen. Horren eskumenak aholkularitzara mugaturik zeuden, eta Nekazaritza Sailaren eskuetan geratu zen kontrol eta egiaztatze ardura.

Jose Antonio Suso Elikagai Politika eta Industria sailburuordeak azaldu duenez, beharrezkoa zen egitasmoa, «sektorea gero eta pisu handiagoa lortzen ari delako». Aldaketa nagusia kontseiluari berari dagokio. Izaera publikoa izatetik, bitarikoa izatera igaroko da, eta ekoizleak, produktore elkarteak, eta kontsumitzaile elkarteek tokia izango dute. Administrazioetako

ordezkariak kontseiluko bileretan parte hartu ahal izango dute, baina ez dute boza emateko eskubiderik izango. Azken finean, ekoizleek euren erabaki beharko dute sektorea norantz zuzendu nahi duten.

Kontrola egingo duten ikuskarriak izendatuko ditu kontseilu berriak, eta zigorrak ezartzeko eskumena ere izango du. Funtsean, nekazaritza ekologikoaren prozesu guztiaren kontrola bermatzeko erakundea izango da, eta praktika hori sustatzeko programak bultzatuko ditu.

Ekonekazaritza federaziokoek legea urrats egokia dela uste dute, orain arteko gabezia batzuk konpontzen dituelako. Hala ere, erai-

kin baten lehen harria jartzearekin parekatzen dute; aurrera begira bestelako erronka batzuei helteko beharra agerikoa dela ohar-tarazi dute. Esaterako, nekazaritza eredu horren beharrak eta auke-rak aztertuko dituen plan estrate-gikoa prestatzea.

Eusko Legebiltzarreko eztabai-dan EAJ, PSE-EE, EAB, EA eta EB-Berdeetako ordezkariak beharrez-kotzat jo zuten legea indarrean jar-tzea. Besteak beste, sektoreak kon-trola eskuratzeak bezeroari berme gehiago aitortuko dizkiola uste du-te. Alderdi Popularrak, aldiz, oso-ko zuzenketa aurkeztu zuen, eta nekazaritza eredu horri ez diola «ezer berririk erantsiko» ziurtatu.